

EUSKAL HERRITARROK

Anonimoa, (2009.6.16)

778. urtean Karlomagnoaren tropek Ibainetako gainean Euskal herriarekin topo egin zuten, lidergo politiko baten gidaritzapean Euskal Herriak hitz egin zuen.

Gizakia animalia politikoa da, hau da, ez da munduan bakarturik bizi izan den gizonik, denok gara giza talderen bateko kide. Gizona eta emakumea ez ditut inoiz ezagutu bai ordea ingelesak, alemaniarrek, irlandarrak, australiarrek..., euskaldunak.

Oinarrizko agente politikoak, herriak dira, beraiek dira egoera politiko bat aldatzeko gaitasuna duten oinarrizko agente politikoak. Era berean egoera politiko zehatz bat aldatzeko gaitasunik ez duen gizataldeak ez du herri bat osatzen, hau da estatu bat.

Era gordinean esateko politikan gerra egiteko gaitasuna duen gizataldeari herri esaten zaio, gerra gaitasun hau ez duen gizataldea ez da estatuengatik kontutan hartua beraien botere hedapenaren oztopo bezala, gizatalde zapaldua da.

Azken urteetan euskaldunon izatea botere eta ekintza espontaneo hutsetara mugatzen da, aldaketa politikorik ekarriko ez duten ekintzatarara mugatua, nekearen nekeaz herriaren suntsipenera daramaten ekintzera mugatua. Aspaldidanik politikan oinarrizkoa den arerioari desobedientzia alboratua izan da, arerioak obedientzia politikoa hori “euskal lidergo” bilakatu duelarik.

“Euskal Lidergo” horrek, politika masen indar erlazio fisiko denik ukatu eta teknikarengatik ordezkatu dute, hau da espainiar estatu faxistaren harraminta soila da politika, non faxismoak eskainitako tresneriaren bidez “hiritarrok” ditugun arazo guztiei konponbidea eman dakieken, hauteskunde demokratikoak, prentsa askatasuna, sindikalismoa...

Eszenario ideal, espainol, faxista eta piramidal horretan, “espainiar hiritarrak” jaiotzaz lege pakete batekin datoz mundura, banakoaren hizkuntza, ohiturak eta abar “estatu demokratikoak” eskainitako paper pusketan batekin bermatzen diren. “Dena da posible, biolentziarik gabe lortzen bada” errepikatzen digutenean, politika masen ekintza biolentzia dela gordetzen saiatzen ari dira, beraiek izan nahi bait dute biolentziaren ekintzaile bakarrak. Biolentziaren monopolioa beraien esku izan dadin “zuzenbide estatu” ideal eta gezurrezko hau eskaintzen digute.

Eszenario erreal gordina ordea beste bat da, hitzez demokrazia, euskara eta ohiturak defendatzen dituzten eina, guzti hori suntzitzeko etengabeko presioa militarrean bizi arazten digute, poluzio ideologiko izugarri baten erabilpenaren laguntzaz.

Euskal Herriaren izatea, espainiar hiritarren izate “demokratikoa” bihurtzeko asmoa du, beste behin ere estatuek karga politikoa kenduz den dena errekuiperatzeko makinaria direla

erakusten digu. Jakin bait dakite politika bera dela beraien agintea zalantzan jarri dezaken ekintza bakarra eta politikak berezko duen biolentzia fisikoa.

Beraien eraginkotasuna eta iraupena anplifikatzeko estatuak zelatan dabilta, arriskutsua izan daiteken edozein mugimendu hiltzeko asmoz, behin hilik mugimenduarenak ziren sinbologia positiboa berenganatzen duelarik.

Espainiar hauteskundeetan parte hartzea taktika suntsitzaile bat izateaz gain, espainiar biolentzia faxista legitimatzeko tresnarik aproposena da. Euskaldunok hainbat gerrateren bidez defendatu dugun estatua, paper pusketa batzuen bidez honen hilketak bilatzen duen taktika inperialista espainiarra. Herria, espainiar hauteskundeetara deitu duen espainiar hiritarra faxismoaren morroi dela lau haizetara zabaldu gura dogu.

Erabiltzen dituzten siglak euskaldunak badira ere, beraien ekintza politikoa espainiar hiritartasunean kokatzen da, demokrata bezala agertzen badira ere Francoren piramide faxistaren aldeko ekintzaile korrupto baino ez dira.

Herria hauteskunde arrotzetara deitzeak, gureak antolatzeko gaitasun ezaren sinismena erakusten du eta sinismen honek herriaren ukazioa dakar berarekin, "self fulfilling Profecy" bidez herriaren heriotzera hurbiltzen duen ekintza.

Biana ez dira leloak, ez dute banakoan eta honen "eskupeko lege paketetxoan" sinesten, ez eta estatuaren balore positiboetan, mundu osoko hauteskundeak izango bait lirateke sinismen horren erakusle, beraien morroi, espainiar gobernuaren morroi nahi gaituzte ez besterik, gure identitate etnikoa hil eta estatuaren identitateagatik ordezkatu, faxismoarenagatik.

Datorren abuztuak 15ean gure arbasoek egin bezala bagerala erakusteko aukera paregabea daukagu.

Gora Euskal Herria!